



Martxoaren
22an,
asteazkena,
Magisteritzako
Fakultatean



ZU ERE BIZIPOZA!

Bizipoza irabazi asmorik gabeko gizartegintza egitasmoa da: izaera bereziko haurren babes eta arretarako elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede.

Bizipoza-k bizipoza du misio: hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin poza partekatzea, euskaraz eta sorkuntzatik.

Bizipoza-k auzolana du bisio: deneriko herritar, talde eta erakundeek osaturiko boluntario sarea osatzea gizartegintzaren poza bizitzeko.

“Euskaraz elkartasuna sustatu nahi dugu auzolanaren bidez bizipoza nagusitu dadin.”

BIZIPOZAREN HELBURU NAGUSIAK

- Izaera bereziko gaiak azalaraztea ume zein heldu euskararen bidez sentsibilizatuz, eta izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarteetan ere euskararen erabilera zabaltzea.
- Errealitate horiek lantzen dituzten elkarteei laguntza afektiboa ez ezik, eguneroko lanerako dituzten premiei erantzuteko baliabide funtzionalak lortzeko laguntza eskaintzea.
- Gizartegintzan euskaraz eta bizipozez jardun nahi duten herritarrei auzolan egitasmo eraginkorra eskaintzea.

Hau guztia posible izateko, **Bizipozak** boluntario-sare bat eratu nahi du, ekonomikoki zein lan eginez (Bizipozak zein honen elkarteek antolaturiko ekitaldietan) bere laguntza eskainiko dituen norbanako zein elkarteek osatua.

Ospitalera bisitak eginez, haurrekin begirale lanak aurrera eramanez, tailer desberdinak aurrera eramanez...

Bizipoza gaur egun, 33 elkartek osatzen dute:

- ASPANIF: Erbi ezpaindun edo aho sabai hautsidun haurren gurasoek osatzen dute nagusiki, baina baita sendagile espezialistek edota gaitzak hartutako pertsonak ere.
- ASPANOI: Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarte.
- ASPANOVAS: Bizkaiko Haur Minbizidunen Guraso Elkarte.
- AURRERA ATERA: Animalien laguntzazko terapiaren bidez bazterturiko kolektiboen aurrean laguntza fisiko eta emozionala bideratzen duen elkarte.

- **BANAIZ BAGARA:** Elkarrekin euskaraz bizitzeko egitasmoak antolatzen dituen elkarte.
- **ADEMG:** Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkarte.
- **AFESTTA:** Euskadiko Tourette Sindromea eta bestelako transtornoen familia elkarte.
- **AGIPASE:** Gipuzkoako Guraso Bananduen Elkarte.
- **AMPGYL:** Estatu mailako lesbiana, gay, transexual eta bisexualen guraso elkarte.
- **ARNASA:** Fibrosi Kistikoaren elkarte.
- **BEROA:** Gipuzkoako Harrera Familien Elkarte.
- **BIHOTZEZ:** Kardiopatiak dituzten haurren familien elkarte.
- **BOCALAN BIAK BAT FUNDAZIOA:** Elbarritasun bat duten lagunei eta gizartean bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten dituen fundazioa.
- **CHERNOBYLEN LAGUNAK:** Ukrainako Dovorria gizarte etxearekin lan egiten duen Gipuzkoako elkarte.
- **ETIOPIAUTOPIA FUNDAZIOA:** Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean (Etiopia), garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematen duen fundazioa.
- **CHRYSTALLIS EUSKAL HERRIA:** Badira alua duten mutilak eta zakila duten neskak, batzuetan pertsona baten sexua ez dator bat jaiotzean genitalen arabera ezarritako sexuarekin.
- **DRAVET SINDROME FUNDAZIOA:** Estatu mailan Dravet Sindromea pairatzen duten haurren familiek osatzen duten fundazioa.
- **EUSKAL HERRIKO DOWN SINDROME FUNDAZIOA:** Down sindromea duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea xede duen elkarte.
- **GEHITU (+TU):** Euskal Herriko Gay, Lesbiana, Transexual eta Bisexualen elkarte da.
- **GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA:** Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa sustatzen duen erakunde gipuzkoarra.
- **GIZKIEN LURRA:** Laguntza zuzena babesik gabeko haurrei. Politika, arraza eta konfesionaltasuna kontuan hartu gabe jarduten duen elkarte.
- **GURE NAHIA ELKARTASUNA:** Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Gipuzkoako elkarte.
- **HIRU HAMABI:** Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familiek osatzen duten elkarte.
- **GURE SEÑEAK:** Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien elkarte.
- **JUNEREN HEGOAK:** Seme-alabaren bat gaixorik duen eta egoera zaurgarrian dagoen familiei laguntzeko elkarte.
- **KALE DOR KAYIKO:** Euskal ijitoek osatzen duten elkarte.
- **MINDARA:** Dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako elkarte.
- **PAUSOKA:** Behar bereziak dituzten haurren gurasoen elkarte.
- **SAHARAREN ALDEKO GOIERRIKO LAGUNAK:** Sahara herriaren alde lan egiten duen elkarte.

- SANFILIPO SINDROMEDUN UMEEN EUSKAL ELKARTEA (VASS): Euskal Herrian Sanfilippo syndrome pairatzen duten haurren familiek eta lagunek osatzen duten elkarte.
- SEHASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA: Ahalmen urriko haurren eskolatzeari ikasleekin batera sustatzen duen elkarte.
- UME ALAIA: Adopzio familien elkarte.
- ULERTUZ: Bizkaian entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta gazteei eta haien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkarte.

IZAN ZAITEZ BOLUNTARIO! ZU ERE BIZIPOZA!

Informazio gehiago *bizipoza.eus*-en

